

MEDIKUAREN ALABA

Mantso-mantso hurbildu zara etxera. Atetik lau bat metrora gelditu zara. Eta gero atzera egin duzu pare bat metro. Hobeto ikuste aldera. Zerk bultzatu zaitu atzerantz? Agian horixe bera da. Agian hobeto ikusi nahi duzu etxea. Perspektibak. Agian perspektibaz ikusi nahi izateak bultzatu zaitu. Ez da ezer aldatu. Ez dela ezer aldatu baieztatu nahi duzu. Pitzadura berberak hormetan. Lorontzi berberak. Balkoian burdin berberak, herdoiltzen hasita baina berberak, azken batean. Katuak ezberdinak behar dutela pentsatu duzu. Hirugarren edo laugarren belaunaldikoak, gutxienik. Zenbat urtez irauten du bizirik katu batek? Zazpi bizitza omen dituzte. Behin, eskolarako bidean zindoaztela, katu bat aurkitu zuten hilik. Tripak agerian omen, eta zuk ez zenuen begitatu nahi izan.

Nora joaten dira katuak hiltzen direnenan?

Sinistu egin zenion. Hamar urte zenituen, eta dena sinisten zenion aitari. Katuak ez dira inora joaten. Katuek hilerriak ez. Zerura joaten zirela esango zizutela baina jaramonik ez egiteko. Katuak ez ziren zerura joaten. Inor ez zen zerura joaten. Usteldu eta desegin, horixe zen katuen patua. Usteldu eta desegin bizitzak aurrera egin zezan. Nazka gorabehera, sinistu egin zenion. Eta hantxe bertan, horma pitzatu haren aurrean, defendatu zenituen aitaren hitz ulergaitzak. Orain geldirik zaude atearen aurrean. Ez da ezer aldatu. Badirudi denborak ez duela etxe hartatik pasa nahi izan. Badirudi, bai, baina zuk badakizu hogeita hamar urte joan direla. Hogeita hamar urteko herdiola. Hogeita hamar urteko lorontziak. Hogeita hamar urteko bidaia egin duzu hogeita lau ordu eskasetan. Pitzadurak zuk beste urte ditu, ordea. Eta hari begira geratu zara. Agian ez da perspektibak geldiarazi zaituena.

Agian abiadurari diozu beldur.

Hozkailuak eman dizu atentzioa. Sukaldera sartu eta berehala erreparatu diozu. Hozlailuaren beheko atea zabaltu duzu. Botila bat ur, bi arrautza eta jogurt pare bat. Azken egunetan ez omen zegoen ondo elikatuta. Bazenekien horrenbeste. Baina hozkailuak eman dizu atentzioa. Sukaldeko erregina litzateke El Salvadorren. Baita Guatemalan ere. Ez duzu deus ulertzen hozkailuez baina badakizu elektragailu zaharra dela. Zaharra da kioskoetako dekorazio aldizkarietan ikusitako hozkailuen aldean. Zaharra sukalde dendetako erakusleihoetakoan aldean. Zaharra izan arren Amazonaseko etxoletan ere prezioatua litzateke. Non entxufaturik baleukate.

Zer da agindarra, aita?

Momentuko jakin-mina ase bazenuen ere ez ginen gai izan ondo azaltzeko. Hitz zailak. Hitz arraroak. Zu bezain arraroak. Lagunak ez ziren izutzen. Propio galdetzen zizuten zuri. Barre egiten zizuten. Baina ez zinen horretaz jabetzen. Ez dakienak ez omen du minik sentitzen. Eta zure aitaren hitzei entzungor egin nahi bazieten beraientzat kalte. Hark emandako erantzuna

zure egin zenuen. Magia ez zela existitzen agindu zenien lagunei. Argindarrak ez zuela magiarekin zerikusirik. Baina inork ez zizun ulertu. Amazonasen ere inork ez dizu ulertzen magiarik ez dagoela esaten diezuenean. Kilometroek ez zaituzte zuk uste bezainbeste aldentu. Hogeita hamar urte igaro ez balira bezala. Hogeita hamar urte ez dira ezer.

Hogeita hamar urte mundu bat da.

Ohea egin gabe aurkitu duzu. Ez zaitu harritu, baina. Bizitzaren azkenetan dagoenak badu bestelako buruhausterik. Emakume bat arduratu omen zen denbora luzez harik eta aitaz nazkatu zen arte. Horrek ere ez zaitu harritu. Jakin badakizu bakardadeak ozpintzen duela gizona. Behin beino gehiagotan ikusi ahaz izan duzu. Munduan zehar ibili izanak eskaini dizu bakarti ozpindu franko ezagutzeko parada. Bakardadeak usteltzen du pertsona. Aitak ez zuen bete amak ohe hartan utzitako hutsunea. Ez dakizu zertagik baina hala izan zen. Eta orain badakizu bakardadea ere mundu bat dela. Basamortua. Ozeanoa. Eta nork berea dakua.

Nork sortu ditu ozeanoak, aita?

Komunista deitu zizuten. Artean ez zenikien zer zen komunista izatea, baina egun hartan negar egin zenuen. Komunista nazkagarria zinela eta horrelako gauzak esateagatik infernua kiskaliko zinela. Lagunez ere etxean aditutako hitzak erabili zituzten. Jaungoikoak mundua sortu zuen, noski, eta ez zela existitzen ziotenak komunistak zirela. Gorriak. Deabrua bera baino gorriagoak. Medikua alaba deabruaren alaba. Horrexegaitik hil zitzaizun ama zu erditzean. Egun batetik bestera isats luzea eta adar gorri bi aterako zitzaizkizun. Aitak liburutegira eramane zintuen lehenengo aldiz. Behin baino gehiagotan entzuna zenion liburutegia ez zela jolastokia. Jolastu nahi zuten haurrek debekatuta zutela sarrera. Jolastera kalera. Baina komunista esan zizuten egun hartan aitak liburutegira eramane zintuen. Eta han zeuden Sahara eta Atlantikoa. Han zeuden erantzunak, liburu haietan. Liburutegi hark liluratu zintuen. Aitaren hitzek lasaitu. Helduak bai, baina haurrak ezin komunista izan.

Eta ez, komunistek ez zuten adarrik.

Egongelako hormetara zuzendu duzu begirada. Argazki zaharrak. Aiton-amonak. Aita eta ama zuri-beltzean. Zurea ez badago, koloretakoa. Ez dakizu noizkoa den, ezta nongoa den ere. Gogoratu beharko zenuke, oso gutxitan jarri baitzara objektiboaren aurrean. Oso gutxitan apaindu zara kameraren beste aldekoek eder ikus zaitzaten. Argazkiak azalekoak dira gosea dagoen tokian. Argazkiak azalekoak dira jatea ederra den tokian. Liburuak, ordea, beharrezkoak ziren. Kultura zen askatasuna. Halaxe esan zizun aitak. Eta askatasunaren ez zegoen jolasterik. Horregatik debekua. Egun badakizu liburuak argazki kamerak bezain azalekoak izan daitezkeela. Eta, era berean, badakizu analfabetismoak pobrezia dakarrela bizkarrean. Ikusia duzu Tegucigalpan. Ikusia duzu San Josen. Ez dago irakurtzen ez dakien jauntxorik.

Noiz sartu ahal izango naiz liburutegian?

Atea zabalik omen zegoen. Zuk beti itxita ikusten bazenuen ere, zabalik omen. Nahi duzunean. Sartu nahi izatea nahikoa omen zen ateak parez pare zabaltzako. Ez zenuen, ordea, berehalakoan ulertu. Ezta eskolako lagunek ere. Haiek are gutxiago ulertu zuten. Aitak agindutakoa bete ezean zaplaztekoa jasoko zuten haiek. Bihurrikeriak ez ziren musutruk izaten. Zuk ez duzu gogan aitak emaniko zaplaztekorik. Izango zen, noski, bat edo beste, baina ez duzu horrelakorik gogoan. Eta zaude ez zeniola masaila berotzeko biderik ematen. Zuk sinistu egiten zenion. Beti zegoen arrazoiren bat. Atea ere beti zegoen itxita. Eta zabalik. Misterioak liburutegiko ate marroi hura bereganatu zuen. Ezagutzen zenuen bertan egona zinelako. Begirada izan zen ate hura aldatu zuena. Begirada baino begiratzeko era. Eta orain ere, liburutegiaren aurrean pasatzean, atearen eskutokia ferekatu duzu hatz batez. Ez zara sartu, baina. Pasillotik jarraitu duzu zure logelarako bidea.

Zu izan zinen neskatoaren arima bertan aurkituko ote duzun.

Sineskeria ez dela ona ikasia duzu aspaldi. Halaxe irakatsi zizun eta halaxe irakasten duzu. Sineskeria uxatu behar dutela esaten zenien Malin. Baita Liberian ere, egoerak okerrera egin eta ihesi egin behar izan zenuen arte. Baina sarritan bertako aztiena zurea baino botere handiagoa izaten zen eta horrek tristatzen zaitu. Zure eginkizuna ez dela egun bateko lana jakiteak ez dizu mina samurtzen. Eta babesa behar duzu. Logelan ere babese bilatu zenuen. Herrikoen irainak eramangarriagoa baitziren ohearen azpian. Bertan eseri zara orain. Desagertu egin dira zure jostailuak zein panpinak. Desagertu egin dira marrazkiak. Han ez dago zu izan zinen haurraren arima. Ez ohearen gainean ezta azpian ere.

Eta non dago amaren arima, aita?

Tristatu egin zintuen erantzunak. Arima nonbait gordeta zenuela pentsatzea kitzigarriagoa zen arimarik ez zenuela pentsatzea baino. Ederragoa eta liluragarriagoa, zalantzarik gabe. Arimak hegan egiten zuela zioten. Etxeko hormak zeharkatzen zituztela, arazorik gabe zeharkatu ere. Arimez beterik zegoela zerua. Bazen lurrean ere bazirela zeharo sinistuta zegoenik. Noraezean omen dabilta, atsedean hartzeko toki baten bila. Zuk, aukeran, nahiago zenuen amak arimarik izatea ez izatea baino. Noraezean ibili arren, aukeran, izatea nahiago. Behingoagatik besteen erantzunak nahiago zenituen aitarenak baino. Eta tristatu egin zintuen zure erantzunak. Ez zegoen arimarik. Ez zegoen frogarik. Sinistu behar izateak bultzatzen du gizakia horrelako erantzunak ematera.

Eta arimarik egotekotan liburuetan bilatu behar zen.

Kezkarik gabe ibili dituzu logelatik liburutegiaren ateraino dauden metroak. Lehen ez bezala, orain erreparatu diozu pasilloan dagoen erlojuari. Geldirik dago. Denborak ba omen du garrantzirik hiltzen ari denarentzat. Agian, ez aitarentzat. Hamar urte zenituenenan denborak bazuen garrantzirik zuretzat. Berrogei urte baino gehiago igaro dira. Egun batean nazkatu zinen ohearen azpian egoteaz. Han babesa zenuen. Ez, ordea, erantzunik. Erantzunak, aitaren erantzunak, liburutegian zeuden. Itxia eta, era berean, zabalik zegoen

ate misteriotsu haren atzean. Egun hartan, gaur ez bezala, kezkatuta iritsi zinen orain zauden tokira. Liburutegiko atearen aurrean zaude. Eta arnasa hartu duzu egun hartan egin zenuen bezalaxe.

Noiz irakurri ahal izango ditut nik liburu horiek?

Luzaroan ez zinen eskolako lagunengana itzuli. Zain zenituela erantzun zizun aitag. Nahi izan, desiratu. Horixe besterik ez zenuen behar liburutegiko atea zabal-zabalik aurkitzeko. Eta korrika joateko, ordurako berandu zela. Denborak ziztu bizian egiten zuela ihes. Eta liburuen konpainia hobea zela erabaki zenuen. Ederragoa, dudarik gabe. Liburuek ez baitzuten gezurrik esaten. Liburu meheak aurkitu zenituen. Liburu potolo askoak. Naturari buruzko liburuak. Itsasoez hitz egiten zutenak, eta itsasoei hitz egiten zietenak. Bihotzaren sekretuak erakusten zutenak, eta maitasunezko hitz ederrak zituztenak. Gehienak ez zenituen ulertzen baina zuri bost. Ulertuko dituzu. “On Kixote” izan zenuen esku artean. “Kapitala”ren lehen lerroak irakurri zenituen piperrik ere ulertu gabe. “Altxorraren uhartea”n eman zenituen ordu asko eta asko. Eta zure hamar urteko hatz txikiaz ferekatu zenuen liburu haien bizkarra.

Izenburua ferekatzea barrukoa zeure egiteko modua balitz bezala.

Gaur ere hatza pasa duzu liburuen bizkarretatik. Zure berrogeita hamar urteko hatz luzea. Apaletan liburuak ordenaturik. Mahaian paperak desordenaturik. Hala zenuen gogoan, eta ez zaitu harritu hala aurkitzeak. Zuk mundu borobil bat ezagutu duzu, gero eta azkarrago aldatzen ari dena. Aitarenak, ordea, lau horma zituen eta ez da sekula santan aldatu. Nork berea aukeratzeko du. Nork berea aurkitzeko du. Potolo horietako bat izan zen nahi gabe aurkitu zenuena. Letra txikiz beterik zegoen eta errearen kolorekoak zituen bizkarreko hizkiak. Urrearen kolorekoa ere orrien ertzean. Oraindik ez duzu ulertzen zergatik zeukan aitag liburu hura baina han irakurritako erantzunak betiko gorde zenituen. Eta hamar urte beranduago aita izan zen galdezka etorri zitzaizuna.

Zergatik, Lola, zergatik?

Jaungoikoak aginduta joango zinela erantzun zenion. Bazenekien ez zuela, ez ulertuko, ez onartuko ere. Hura zen zure bidea. Haiek ziren zure erantzunak. Ez zenion dena kontatu, ordea. Ez zenion esan liburutegi hartan sartu zinela bera bezalakoa izateko bidearen bila eta atera zinela kontrato norabidean. Ez zenion esan zientziaren hitzak baino erakargarriagoak zirela erlijioarenak. Alferrikako hitzak izango ziren. Jaungoikoak mundura bidali nahi zintuela esan zenion. Etxetik kanpo bazegoen nori laguntza eman. Aitag ez zegoela jainkorik esan zizun. Existitzen ez denak ezin inori ezer agindu. Aitag ez zuen Jaungoikoa ezagutzen. Ezta haren erantzunak ere. Aitag ez itzultzeko agindu zizun. Alde egiteko.

Sor Dolores, alde egin behar duzu –esan dizu herriko apaizak.